

BERTSOLARITZA eta KAZETARITZA

Udazkenean Bertsolari Txapelketa Nagusia 2009 gauzatuko da Bertsozale Elkarateak antolatuta. Guztira 14 saio izango dira. Urriaren 3an Zestoan hasi eta abenduaren 13an Barakaldon (BEC) amaituko da.

Txapelketak milaka lagun batuko ditu saioz saio eta komunikabideetan oihartzuna izango du.

Bertsozale diren irakurle, entzule, ikusleei ez ezik, bertsolaritzara hurreratzen den jende berriari ere bertsoez azalpenak emateko bitartekoak eta baliabideak eman nahi dizkie kazetariei Bertsozale Elkarateak. Horretarako, egun biko mintegia antolatu dugu.

Egun biko mintegia izaki, edukiak ere bi zatitan bilduko ditugu. Lehen egunean, oinarri teoriko batzuk eman nahi genizkieke kazetariei. Ez dira izango alderdi teknikoetara mugatuak, ikuspegi osatuagoarekin landuak baizik. Batetik, bat-bateko bertsoa gaur egun nola ulertzen den azalduko dugu, eta hori nola islatzen den epai irizpideetan. Bestetik, bertsolarien sortze-prozesura hurbiltzeko saioa egingo dugu, haien lekuan jartzeko ahalegintxoak. Lehen egun horretako helburua ez da kazetariak entzule edo hartzaile huts izatea; haien zalantzak eta kezak argitzea da helburu nagusia, haien iritziak aditzea eta elkarren osagarri izatea.

Bigarren eguna praktikoagoa izango da. Bat-bateko bertsoak transkribatzeko jarraibide batzuk emango dizkiegu kazetariei, eta gero bertsoaldi batzuk aztertuko ditugu elkarrekin. Bigarren egun horretan ere, kazetariei jakingarri iruditzen zaizkien alderdietan sakontzea da helburua. Eta kazetarien jakin-mina nondik nora dabilen eta zein oinarritatik abiatzen diren jakin ahal izateko, galderatxo bat erantzun dezatela eskatzen diegu (jarraian dator), gure azalpenak horretara egokitu ahal izateko.

Mintegiaren ezaugarriak

Goizeko jardun bi izango dira, irailaren 24an eta 25ean, 10:00etatik 13:30etara.

Helburua:bertsolaritzaz komunikabideetan jardun nahi duten kazetariei bertsolarien jarduna aztertzeko baliabideak ematea eta sakondu nahi duten gainontzekoei bertsolaritzara hurbiltzea.

Doan izango da.

Jardunak bi zati nabarmen izango ditu

Irailaren 24an – Oinarri teorikoak

- Bat-bateko bertsoa, gaur eta txapelketan
- Bertsoa sortzen

Irailaren 25ean – Alderdi praktikoagoak

- Bertsoak transkribatzeko oinarriak
- Bertsoaldi hautatu batzuk. Iritzi trukea

Irakasleak Karlos Aizpurua eta Arkaitz Goikoetxea izango dira.

Bertsozale Elkartearen egoitzan izango da. Villabonako Mintzola ahozko lantegian. (Kale Nagusia 70)

Galdetegia

Azaldu iezaguzu bertsolaritzaz dituzun ezagutzak zeintzuk diren edo, nahi baldin baduzu, mintegi honetan zer ezagutza eskuratu nahiko zenukeen.

.....

.....

.....

.....

.....

Izena ematea

Izen-abizenak:

Komunikabidea:

Telefonia / P. elektr.

Helbidea:

Datuok bete eta bidali **irailaren 18rako** info@txapelketanagusia.eu helbide elektronikora.